2013-IV-12
Número **397.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Arrazoiak soberan

**Lan arloan eta eskubide sozialen eremuan bidegabeko erabaki politiko bakoitzari beste batek jarraitu dio, etenik gabe, azken urteotako gurpil madarikatuan. Dagoenekoz ez gaitu harrapatzen deskuidoan politikaren norabideak. Aldiz, geroz eta garbiago dugu bide honetatik gizartearen haustura, langabezia eta pobreziara kondenatzen gaituztela herritarron gehiengoa. Hurbileko adibideak ditugu, zoritxarrez, nabarmentzeko eskubideen suntsiketa honek giza-tragediara eraman gaitzakeela berandu baino lehen.**

**Etsipenetik harantzago joateko mila motibo ditugu, etsipenaren sentimendua mobilizazio antolatuarekin gainditu beharra dugulako. Bidegabeko politika fiskalarekin batera eskubideak suntsitzeko diseinaturiko lan eta negoziazio kolektiboaren erreformak ditugu; pentsioen murrizketekin batera soldatak gupidagabe behera botatzeko ahalegin sendoa; aurrekontuen murrizketekin batera patronalak xantaia moduan erabiltzen duen milaka lankideen langabezia; sektore publikoaren gainbehera eta bertako negoziazio kolektiboaren desagerpena; etxe kaleratzeak eta langabezia-prestazioaren murrizketa...**

**Soziala den guztia eraisteko erasoaren aurrean motibo ugariak ditugu mobilizazio erraldoia antolatzeko; greba orokor baten beharrean gaude. Eta arrazoiak gure alde baditugu, orain indarrak pilatzeko garaia dugu. Egoera honi aurre egiteko borondate irmoa dutenekin, gure aliatu sindikal eta eragile sozialekin, gutxieneko partekatuekin bat datozenekin erantzuna antolatu beharra dugu. Ezinbestekoa zaigu denoi ditugun alternatibak plazaratzea, bestelako gizarte bat eraikitzea posiblea dela aldarrikatzea eta hori lortzeko mobilizazioa nahitaezkoa dela konbentzitzea.**

**Gizarte justu eta bidezkoagoan sinesten dugunok ez dugu beste aukerarik. Gizartea antolatu eta aktibatuz bakarrik etor daiteke eraldaketa soziala. Eta gu horretan hezur-muinetaraino konprometituak gaude.**

Lankidetu!

## Adolfo Muñoz denuncia la situación de emergencia social que vivimos y destaca que ELA está trabajando para lograr una respuesta conjunta

# "HAY MOTIVOS PARA UNA HUELGA GENERAL"

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki, denuncia en esta entrevista que vivimos un experimento totalitario que ha declarado una guerra contra los pobres. "Para ello –añade– han diseñado un derribo organizado de lo social en favor de la banca y el gran capital". En este contexto Muñoz considera que no queda otra opción que responder, y adelanta que ELA está trabajando con otros sindicatos y organizaciones sociales para dar una respuesta lo más contundente posible, incluyendo también una huelga general.

**-¿Qué lectura haces de la actual coyuntura económica, social y política?**

-Sin dramatismos, consideramos que la situación es excepcionalmente grave. Estamos sufriendo un experimento totalitario que defiende una guerra contra los pobres. Si les dejamos, destruirán todo lo social. Están midiendo nuestra capacidad de resistencia. Si no les paramos, ¿qué van a dejar en pie? La respuesta es evidente.

**-Entonces, ¿qué plantea ELA en esta situación?**

-Si hay una evidencia histórica es que no hay ningún derecho ni logro social que no se haya conseguido gracias a la movilización social. Sólo desde la lucha y la movilización se han logrado los derechos que pretenden destruir. No nos han regalado nada; lo mucho o poco que tenemos nos lo hemos tenido que ganar.

En este sentido, los gobiernos deben sentir una presión social que les obligue a hacer otras políticas. No hay otra vía que la movilización. Hay que reivindicar con más fuerza que nunca el sindicato como instrumento de defensa colectiva, así como el trabajo conjunto entre las organizaciones sindicales y los movimientos sociales.

En ELA estamos trabajando –junto a los sindicatos y organizaciones sociales que convocamos la movilización del pasado 16 de marzo– en un movimiento de propuestas y respuesta para lograr un cambio radical en las políticas sociales y económicas. Y dentro de esa

*Sigue en la página 2*



*Arriba una fotografía de la huelga general del pasado 26 de septiembre. La imagen corresponde a la manifestación realizada al mediodía en Donostia, donde, como en resto de Hego Euskal Herria, la clase trabajadora vasca exigió un cambio radical de las políticas sociales y económicas.*

## ESKUBIDE SOZIALEN ALDE, MAIATZAREN LEHENEAN BILBORA!

***Eskubide sozialen alde. Por los derechos sociales.*** Hori da Maiatzaren Lehenean ELAk zabaldu nahi duen oihua. Bizi dugun klase borroka honetan kapitalak eta patronalak eskubide sozial guztiak suntsitu nahi dituzte. Guztiak. Helburu hori lortzeko tokian tokiko klase-politikoa erabiltzen dute. ELAk, ordea, argi du gogor borrokatuko duela horren kontra. Horregatik Maiatzaren Lehenean ezinbestekoa da kalera ateratzea eta hortzak erakustea. Bestela gure gainetik pasako dira. Aurten ere ELAk Bilbon ospatuko du Maiatzaren Lehena. Hurrengo *Astekarian* egun garrantzitsu honen inguruko informazio gehiago jasoko dugu. Dena den, gauza bat aurreratu dezakegu: Bilboko kaleak betetzera goaz!

*La defensa y la lucha por los derechos sociales será el eje del acto que ELA celebrará este Primero de Mayo en Bilbo*



respuesta nuestro sindicato ve imprescindible la convocatoria de una huelga general. Creemos que hay motivos de sobra, y esperamos que el trabajo que estamos realizando de sus frutos.

**-Destacas que hay motivos para una huelga general...**

-No hay ningún solo país que haya salido de la crisis aplicando la doctrina neoliberal. Es más, donde se está aplicando esta doctrina con más fuerza es donde más está empeorando la situación. Si no cambiamos las políticas que nos están imponiendo seguiremos avanzando hacia el abismo. Basta mirar a Grecia y Portugal.

Desde luego en ELA no estamos dispuestos a eso, tenemos claro que seguiremos plantándoles cara con toda nuestras fuerzas, y consideramos que la huelga general es una herramienta imprescindible en ese proceso.

**-El panorama para la clase trabajadora es desolador...**

-Y más duro que será si no lo logramos. Esto es una lucha de clases, donde los ricos son cada vez más ricos y los pobres cada vez más pobres. Y dentro de esta lucha un objetivo es acabar con cualquier elemento que tenga que ver con lo social, con lo que distribuye la riqueza. Saben que es imprescindible para, por una parte, hacer negocio con todos los servicios sociales elementales –sanidad, educación, pensiones, dependencia...– y por otra para seguir utilizando a la clase obrera como mano de obra barata que acepte cualquier chantaje con tal de poder sobrevivir.

Dicho esto, tenemos que tener claro que hay alternativa. Lo que estamos viviendo no es un fenómeno natural, es consecuencia de unas políticas hechas al dictado del capital y de la gran patronal. Por lo tanto, con otro tipo de políticas sociales y económicas –por supuesto, radicalmente diferentes que las que nos han traído hasta aquí– será posible revertir la situación. Y nosotros tenemos claro que solo desde la movilización social será eso posible.

**-¿Y cómo ves a los Gobiernos?**

-Noqueados, pero cumpliendo todo lo que exige el capital. Bruselas la pasada semana exigió que se hagan más reformas y recortes. Es una locura. Ante esta situación quienes nos gobiernan son más papistas que el Papa y renuncian a discutir nada de eso.

*"Hau klase borroka da. Aberatsak gero eta aberatsago, pobreak gero eta pobreago. Geldiarazten ez baditugu suntsitu egingo gaituzte"*

# GREBA OROKORRERAKO ARRAZOIAK




Doktrina neoliberala inon ez da izan krisitik irteteko modua. Egoera bereziki larria da, eta ez gara txantxetan ari. Grezian, hots, krisiari dagokionez aurretik doan herrian, "giza-tragedia" bizi dute. Politika guztia finantzetako zuloaren zerbitzura jarri da. Bai, bankuek Rajoy xaxatzen dute: "Ondo ari zara; segi murrizten". Bankuek 2012an beste 41.000 milioi jaso ditu; diru hau ez dute itzuliko, eta ekonomioa erreaIak kredituriK ez du jasotzen. Konstituzioa erreformatu zuten bermatzearren zor publikoarekin espekulatzen dutenek beren dirua jasoko dutela. Horretarako dira murrizketak.

## PENTSIOEN BESTE ERREFORMA BAT

Pentsio publikoak moztu ahala, bankariek "beren" pentsio-funts pribatuentzako negozioa sumatzen dute. PPren erreformak areago okertu du 2011n Zapaterok egin zuena. Orduan PPk aurkako botoa eman zuen, esanez atzera botako zuela gobernura iritsiz gero. Gezur hutsa. Hori balio baitute oposizioan dauden alderdien hitzek: ezer ez. Rajoyk "zahartze aktiboa" aipatzen du, gazteen langabezia %50etik gorakoa delarik, erretiroa hartu beharko luketenen bizitza laborala luzatze aldera. Gainera, "iraunkortasun faktorea" inposatzen du erreformak automatikoki egiteko eta sistema publikoa txiki-txiki eginda uzteko. Gora eufemismoak! "Zahartze aktiboa" eta "iraunkortasun faktorea". Hipokrisia gordina da "iraunkortasunaz" mintzatzea, nor eta enplegua suntsitzen dutenak, soldatak jaitsi edo jornal miserableak erabakitzen dituztenak, patronalaren gizarte-kotizazioak murrizten dituztenak eta esaten dutenak pentsioak kotizazioekin ordainduko direla, sekula ez zergekin.

## AURREKONTU PUBLIKOAK ETA ENPLEGUA

Arlo pribatuak lanpostuak barra-barra deuseztatzen dituen unean, Gasteizko gobernuak historian izan diren aurrekonturik latzenak egin ditu. Krisiari egiten dion ekarpena, atzeraldi latzagoa, langabezia handiagoa, pobrezia eta desberdintasuna areagotzea. Oinarri bakarra dute, defizita kentzeko grina (Rajoyk %0,7an finkatu zuen, eta Urkulluk honi men egiten dio), eta justutik ezer ez duen zerga-politika. Gastua 1.150 milioitan jaitsiko dute, BPGaren %1,7a alegia, eta hau astakeria bat da. Aurrekontuek, berriro, negoziazio kolektiborik gabe utzi dituzte langile publikoak. Legebiltzarrak aurrekontu-proiektua ez onetsiagatik ere, gobernuak bere asmoa aplikatuko du, Nafarroan bezalaxe. Parlamentuko debatea ezdeusa da. Horixe da parlamentuei gaur egun uzten zaien eginkizuna.

## PARADISU FISKALEN EREDUAK PORROT EGIN DU

Gure Tea Partyak, atsedenik gabe patronalarentzat lanean dihardula, ekarri gaitu ataka honetaraino, dirukutxa publikoak hustuta. Alderdiek baztertu egin dute fiskalitateari zor zaion lehentasuna emateko aukera, eta larrutik ari gara ordaintzen. Ez ditugu axaleko erreformak nahi, zeinen bidez aldaketa txikiak eginda gauzak lehengoan jarraituko baitute. EAEn 4.400 milioi eta Nafarroan, 2.070 milioi gehiago biltzeko aukera legoke presio fiskala EBko batez besteko mailaren parera igoz gero. Alabaina, zergen inguruko eztabaida bahituta dauka alderdiak kontrolpean dituen elite batek. Fiskalitatea gure aldarrikapenen erdigunean dago; lau foru-ogasunei eskatzen diegu Kontzertu eta Itun Ekonomikoa beharrizan sozialen zerbitzura jar ditzatela.

## SOLDATA JAITSIERA LAZGARRIA NAHI DUTE. ZEIN DA HELBURUA?

Jende gutxiagok ordu gehiagoz lan egitea eta gutxiago irabaztea. Horri "barne-debaluazio" deitzen diote, "lehiakortasuna hobetzea"... Baina ezkutatu egiten dute benetako helburua kapitala metatzea dela. Horren ondorioa enplegu gutxiago izatea eta pobrezia hedatzea da. Soldatak ez dira soilik lan-kostu bat. Aberastasunaren banaketan berebiziko garrantzia dute, eta datu ofizialek diotenez, azken 35 urteotan ekonomian gero eta pisu txikiagoa dute. Soldatak, kostu ez ezik, ondasun eta zerbitzuen eskaria dira (ekonomia erreala), zerga-bilketa, gizarte-kotizazioak... Beraz, soldaten alde eginda ekonomia erreala, enplegua eta gizartearen kohesioa defenditzen dira.

## PATRONAL ERREAKZIONARIOA

CEOEk (hots, baita Confebaskek eta CEN ere) enpresei gomendatzen die erreformaz balia daitezela "hitzarmenen edukiak aldatzeko, behingoz eta goitik behera". Eskertzekoa da lur kiskaliaren estrategia horren argi adieraztea. ADEGIk Gipuzkoako Aldundiaren kontrako salaketa sartu du auzitegietan, erakundeak egoitzen hitzarmenean "negoziazioko oreka hausten" omen duelako. Adegik dioenez, Aldundiak inoiz ez omen zuen aldeetako bat lehenetsi. Zinismo hutsa! Bestalde, Confebaskek dio Urkulluren aurrekontuan "gehiegizko gastu soziala" aurreikusi dela. Lotsa galdu dute. Deigarria da hain zakar jokatzea fabore politikoak izatera ohituta dagoen patronalak, nahi duena lortzen duen berberak. Isiltzeko gomendatu beharko liokete; ez baitute hainbesteko zaratarik egin behar (ez dute horretarako beharrik). Gobernuek ez die horregatik kargu hartzen; betikoan gara. Aitzitik, badakite patronala diru publikoaz finantziatzen den lobby bat dela, eta bere eginkizuna soziala den guztia hondatzea dela; horretan ari da hain zuzen.

## DEMOKRAZIA ETA USTELKERIA

PPk, bere zuzendaritza korrupzio kasuetan harrapatuta dagoelarik, herritarrak odolusten jarraitzen du. Honek agerian uzten du bizitza demokratikoa zein ustela dagoen, zenbateraino hondatu den. Hego Euskal Herrian politika PPk erabakitzen du; bere neozentralismo eta neoliberalismoa ezartzen du, gobernu guztiek esanekoak izan daitezen. Haatik, politika honek gero eta jende gehiago pobreziara daramanean, men ez egiteko eta desobeditzeko aski arrazoi badago. Agindu batzuk ez dira bete behar. Hau justizia kontua da. Halere, euskal klase politikoan ez dugu ikusten Madrili demokratikoki aurre egiteko borondaterik, ez arlo soziala, ezta autogobernua salbatzeko ere: hauek ditugu, hain zuzen, Lan Harremanetako eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparruaren ardatzak.

## MOBILIZAZIO SINDIKAL ETA SOZIALA

Esperimentu totalitario bat pairatzen ari gara, pobreen aurkako gerra egin nahi dute. ELAren ustez, soziala den guztia eraisteko erabaki horri greba orokorrarekin erantzun behar diogu. Ezinbestekoa da, politika alternatibo bati balioa emateko. 2009ko maiatzean esan genuen "politikak aldatu ezean, murrizketak etorriko dira". Arrazoia genuen. Gaur diogu haiei eskuak libre utziz gero soziala den guztia txikituko dutela. Gure erresistentzia ahalmena ari dira neurtzen. Gure buruari galdetu behar diogu zutik zer utziko ote duten. Gobernuek herritarren presioa nabari behar dute, bestelako politikak egitera behartuta egon daitezen. Mobilizazioa beste biderik ez daukagu. Bestalde, patronalari esan behar zaio ondo asko ezagutzen ditugula bere aliatuak: legea eta langabeziak eragiten duen beldurra, gizartea diziplinatzeko. Ultraaktibitatearen galeraz baliatzen dira xantaia egiteko -indartsu sentitzen diren tokietan- soldaten jaitsiera eta erreformaren aplikazio unilaterala ezartzeko. Patronal honi gobernuek nahi duen guztia ematen dioten artean (azken oparia, hitzarmenen salbuespena ezartzeko derrigorrezko arbitrajea), antolakuntza sindikalarekin eta borrokarekin egin behar zaio aurre. Inoiz baino areago aldarrikatu behar da sindikatua dela defentsa kolektiboko gure tresna, baita sindikatuok eta gizarte-mugimenduok elkarrekin egiten ari garen lana ere.

***Adolfo Muñoz Sanz, Txiki,***
***ELAko idazkari nagusia***

# LABURREAN / BREVES

## • Corrugados bizirik dagoela aldarrikatuko dute langileek apirilaren 20an Azpeitian

Apirilaren 20an, larunbata, manifestazioa izango da Azpeitian, Corrugadoseko langileek –ELA eta LAB sindikatuen babesarekin– deituta. Protesta 12:00tan hasiko da eta leloa *Eskualdeko etorkizun industrialaren alde* izango da. Langileek salatzen dutenez ez dute berri gehiagorik izan Alfonso Gallardo Taldeak Azpeitiko lantegia ixteko erabakia hartu zuenetik. Langileek manifestazioaren aurkezpenean azpimarratu zutenez "langileen zein eskualdearen etorkizunaren aldeko lana egin dezaten eskatu nahi diegu udalei, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari".




## • Lan hitzarmen propioa aldarrikatu eta eurekiko errespetua eskatu diote Sopelako udal langileek udal gobernuari

Azaroan abiatu zuten Sopelako Udal eta udal erakundeetako lan baldintzak arautzeko hitzarmenaren negoziazioa. Udalhitz hitzarmenaren baliogabetasunaz jabetuta, lantokiko hitzarmenaren aldeko hautua egin zuten beharginek, ordura arteko baldintzak mantentzea helburu izanik. Udal Gobernuarekin negoziazio bilerak izan arren ez da adostu orain arteko baldintzak hitzarmenean jasotzerik. Blokeo egoera horren aurrean, udal langileek –ordezkari sindikalei babesa emateaz gain– udal gobernuari eskatzen diote hitzez adierazitako asmo onak gauzatu ditzala.




## • ELA Munduko Gizarte Foroan

ELAko ordezkaritza bat Tunezen izan zen martxoaren 26tik 30era Munduko Gizarte Foroaren IX. ekitaldian. ELAk 2001ean Porto Alegren ospatu zen Gizarte Foroaren lehenengo edizioan parte hartu zuen, eta orduz geroztik Foro guztietan egon da.

Aurtengo ekitaldian ere ELAk parte-hartze aktiboa izan du. Gauzak honela sindikatuko ordezkariak bi mintegitan izan ziren hizlari. Lehenengo mintegia –*Sindikatu eta gizarte aliantzak zorraren gaiaren inguruan. Hiritarren auditoria baten aldeko mobilizazioak* izenekoa– Lieja-Huy-Waremme-ko FGTB-k antolatu zuen, eta bertan ELAko nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarri izan zen. Bigarren mintegian, berriz, gizarte politiken arduradun Mikel Noval aritu zen; Quebec-eko CSN sindikatuak antolatu zuen, eta bere gaia honakoa izan zen: *Sindikatuak, gizarte transformazioa eta berriztatze sindikalaren aldeko borrokak*.

## • Bost egunetako greba Gipuzkoako zaharren egoitzetan

Apirilaren 16an bilera berri bat izango da Gipuzkoako zaharren egoitzetako patronalekin, Adegi eta Lares. ELA eta LAB sindikatuek sektorean dituzten ordezkariek negoziazioetan dagoen blokeoa salatzen dute. Gauzak honela hauxe iragarri nahi dute: 16ko bileran akordioa lortu ezean bost greba egun deituko dira: apirilak 29 eta 30 eta maiatzak 1, 2 eta 3.

## • Akordioa Gipuzkoako gasolindegietan

ELAk eta AEGAk (Gipuzkoako Gasolindegien Patronala) Gipuzkoako Gasolindegien Hitzarmenaren inguruko akordio lortu zuten apirilaren 5ean. (AEGA patronala ez dago Adegi-ren baitan). ELAk balorazio oso positiboa egiten du 2015era bitartean indarren egongo den hitzarmen honen inguruan, eta lorturiko akordioa langileen borrokaren emaitza dela azpimarratzen du. ELAk gehiengoa du sektorean, eta gainontzeko sindikatuek ere bat egin dute akordioarekin. Hitzarmenak, besteak beste, bi urteko ultraaktibitatea eta KPIaren araberako soldata eguneraketak jasotzen ditu. Gainera lan-erreformaren alderdirik kaltegarrienetatik babesten ditu Gipuzkoako gasolindegietako langileak.

## • Un mes de huelga de la plantilla de Fhimasa

La plantilla de Fhimasa, subcontrata del Ayuntamiento de Bilbao para, entre otras labores, el mantenimiento de las aceras y la reparación y renovación de la red de aguas, se encuentra en huelga indefinida desde el pasado 5 de marzo. La plantilla destaca que seguirán movilizándose frente al Ayuntamiento hasta conseguir que la dirección de la empresa presente de una vez por todas una propuesta que permita avanzar en la negociación del convenio colectivo.




## • Adegi no acepta ninguna limitación a la reforma laboral

El 9 de abril se celebró una nueva reunión de la mesa negociadora del Convenio del Metal de Gipuzkoa. En la reunión Adegi volvió a dejar clara su posición. ELA quiere denunciar, una vez más, la actitud insolidaria y ultra liberal de Adegi. La patronal quiere un convenio exclusivamente referencial, en el cual, en ningún caso se limite la posibilidad de que las empresas puedan aplicar la Reforma Laboral.

Unai Martinez, responsable de ELA-Metala, exige una negociación donde se garantice un Convenio del Metal de Gipuzkoa con incrementos salariales y en el que se incluyan clausulas que limiten los efectos de la Reforma Laboral. "Además, –recalca Martinez– seguimos ahondando en el trabajo sindical de negociar Convenios de Empresa en todos los centros de trabajo, Convenios de Empresa en los cuales se están alcanzando acuerdos en cuyos textos se incluyen cláusulas anti reforma".

## • Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du onartu Laminaciones Arreguiko espediente berria

Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen apirilaren 8an Celsa Atlanticeko zuzendaritzak –Laminaciones Arregui ohiak– martxoaren 27an Madrilen aurkeztu zuen espediente berria. Espedienteak Gasteiz eta Urbinako langileei eragiten zien, eta bi urtez kontratuak etetea jasotzen zuen.

Bestalde, Bilboko epaitegiak baliogabetutako dosierraren inguruan Espainiako Auzitegi Gorenak emango duen azken erabakiaren zain daude uneotan langileak. Zuzendaritzak Auzitegi horretan jarri zuen EAEko Justizia Auzitegi Gorenak emandako ebazpenaren aurkako helegitea, eta luze gabe jakingo da 178 langile kaleratzeko dosierra baliogabetzea zuzena den ala ez.




## • Ingeteam Power Techonology de Zamudio retira el ERE

A finales de enero la empresa Ingeteam Power Technology S.A. presentó un ERE de suspensión para la práctica totalidad de la plantilla. ELA, en nombre del Comité de Empresa, registró un informe contradictorio al planteamiento de la empresa y recurrió jurídicamente el ERE.

Ahora, tras el informe de alegaciones presentadas por el comité, el informe de la Inspección de Trabajo desfavorable a la empresa y el recurso jurídico presentado por ELA, la empresa ha dado marcha atrás en la pretensión de aplicar un ERE de suspensión.

## • Lopez Peñaren heriotzaren inguruan gertatutakoa ikertu beharra dago

ELAren iritziz Xabier Lopez Peñaren heriotzaren inguruan gertatu den guztia ikertu beharra dago, eta izan litezkeen ardura penal zein politikoak ebatzi behar dira, azkeneraino. Gertatutakoa salatu asmoz, ELAk bat egin zuen apirilaren 6an *Berriro gerta ez dadin, salbuespen neurriak eten* lemapean Bilbon egin zen manifestazioarekin.

## • Espainiako Auzitegi Gorenak Donostiako zortzi gazteren aurkako espetxe zigorra berretsi du

ELAk gogor salatu nahi du Espainiako Auzitegi Gorenak apirilaren 8an Donostiako zortzi gazteren kontra hartu zuen erabakia; epaitegiak berretsi egin zuen zortzi gazte horien aurkako espetxe zigorra. ELAk proiektu politiko baten alde militatzearen eskubidea bermatua izan dadila exijitzen du, inongo errepresaliarik gabe.

Gainera, gazte horiek kartzelara eramango dituen prozesua irregulartasunez beteta egon dela salatu nahi du gure sindikatuak.

ELA trabaja en la socialización de una respuesta masiva contra los recortes

# "FISCALIDAD MÁS JUSTA EN DEFENSA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS"




ELA-Gizalan ha puesto en marcha una campaña informativa en defensa de los servicios públicos consistente en la elaboración y reparto masivo de boletines, así como de un cartel con el lema *Fiskalitatea aldatuz, zerbitzu publikoak guztiontzat*. En esta campaña se insiste en la necesidad de reforzar los servicios públicos en una época de crisis como la actual y en que un cambio radical de la actual política fiscal es la vía para hacerlo. Ante la negativa de las distintas Administraciones a dar un giro en sus políticas públicas de recortes, ELA insiste en la necesidad de movilizar a los trabajadores/as del sector público y al conjunto de la ciudadanía. Peio Igeregi, responsable de organización de ELA-Gizalan, desgrana esta campaña y la última hora en los distintos sectores públicos.

**-¿Por qué esta campaña en defensa de los servicios públicos?**

-Los últimos años venimos repitiendo una y otra vez que los servicios públicos son los garantes de unas condiciones de vida dignas, más allá del poder adquisitivo de quien haga uso de dichos servicios. En una situación de crisis profunda esta garantía se vuelve imprescindible para no provocar situaciones de pobreza y exclusión social, en el presente y en el futuro.

La apuesta de los diferentes gobiernos es, sin embargo, justamente la contraria. Han adoptado la decisión política de no cambiar la política de ingresos, ponen el presupuesto público al servicio de las necesidades de la banca, recortan el gasto público, eliminan y recortan servicios públicos en el momento en el que más necesarios resultan...

Quienes trabajamos en los servicios públicos tenemos la obligación de defender la calidad de dichos servicios, al tiempo que defendemos nuestras condiciones de trabajo. Necesitamos estabilidad, cargas de trabajo aceptables y condiciones de vida dignas para poder ofrecer un buen servicio; y dejándonos la piel por la calidad del servicio, podremos ganar legitimidad social para reivindicar nuestras condiciones de trabajo.

**-Tras prometer en campaña que no se iban a producir recortes en los servicios públicos, no ha hecho falta demasiado tiempo para que el Gobierno de Urkullu haga lo contrario a lo dicho.**

-Quieren hacer caer sobre las espaldas de quienes trabajamos en los servicios públicos y quienes reciben dichos servicios el peso de su brutal recorte presupuestario. El gobierno llamó a los sindicatos a un teatro de mesas de negociación en las que lo único que no se hizo fue negociar. Ante el planteamiento presupuestario, se quiso dar la impresión de negociar con los sindicatos los recortes que tenían previamente decididos. Además, en la propia mesa se amenazó con la aprobación de nuevos recortes si la *situación económica* así lo requería, concepto que el propio gobierno interpretará unilateralmente.

Estos recortes van a suponer destrucción de empleo precario en los diferentes servicios públicos, empeoramiento aún mayor de las condiciones de trabajo, y deterioro de la calidad de los servicios. Además, los recortes van a provocar incremento del paro y la pobreza, aumentando, a su vez, la necesidad de los servicios públicos. ¿Cómo vamos a hacer frente a más demanda con menos medios?

**-Venden los recortes como algo inevitable cuando no es así. No os cansáis de repetir que hay alternativa: una fiscalidad justa.**

-La mayor parte de la gente desconoce que en la CAPV tenemos una presión fiscal 7 puntos inferior a la media de la UE, y que eso significa dejar de ingresar 4.400 millones de euros. Cuando dicen que hay que recortar porque '*esto es lo que hay*', ocultan este hecho.

La fiscalidad que padecemos es muy injusta; recae, esencialmente, sobre las rentas de trabajo. Solo ellas son controladas; hay un fraude escandaloso. Hicieron reformas para beneficiar a las rentas altas, de capital y empresariales, reformas que no quieren echar atrás.

Urkullu defiende un presupuesto con 1.132 millones de euros de recortes para 2013 cuando podría ingresar 4.450 millones de euros más con una presión fiscal equivalente a la media europea. ¿Por qué no lo hace? ¿Por qué prefieren los recortes? Es muy sencillo: las Haciendas vascas defienden los intereses de aquellas élites económicas que no quieren pagar impuestos.

El hecho de tener una fiscalidad tan injusta y un nivel de ingreso tan bajo conlleva, a su vez, que el gasto público en la CAPV sea de los más bajos de la Unión Europea. En consecuencia, el desarrollo de los servicios públicos se ve constreñido por unos ingresos bajos y un gasto insuficiente. La mejora de los servicios públicos y las condiciones de trabajo de quienes los ofrecen pasa por romper este binomio. Existen alternativas, y pasan por hacer pagar impuestos a quienes ahora no lo hacen.

**-Ante el fracaso de las negociaciones en la Mesa general, parece que el gobierno apuesta por ir sector por sector.**

-Van a los sectores para intentar engatusarnos. El Gobierno va a tratar de cerrar acuerdos con recortes en los distintos sectores cuando no ha sido capaz de hacerlo en la Mesa General. Va a tratar de hacernos elegir a los sindicatos entre un mal recorte y otro peor, buscando asegurar de esta manera la paz social. Para ELA no existe margen de negociación que no pase por frenar en seco todos los recortes, priorizando, ante todo, el mantenimiento de todo el empleo y un compromiso real de que no va a haber nuevos recortes en el futuro.

Sin esas dos premisas la negociación supone darle aire al gobierno para que, al amparo de la paz social, pueda implementar nuevos recortes sin contestación. Está claro que sólo nos queda la movilización.

**-La semana pasada hubo numerosos actos de protesta y movilización de las y los trabajadores de los servicios públicos...**

-Hacemos una valoración muy positiva de la respuesta de la gente. El éxito de la movilizaciones en los diferentes sectores es una evidencia más del malestar de la gente.

**www.ela-sindikatua.org / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207